

ERABAKIA, 2025ko ekainaren 10koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE OSOEN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDAREN ARGITARATZEKO DENA.

2025ko apirilaren 14ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle osoen plazak betetzeko (2025ko maitzaren 2ko EHAA), eta amaituta onartuen eta kanporatuen behin betineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Irakasle eta Ikertzaileen web orrian ere argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko Errektoreari, hilabeteko epearen barruan zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2025ko ekainaren 10koa.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2025ko ekainaren 30koa, errektorearena; otsailaren 19ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Izpta.: Efren Areskurrinaga Mirandona